



Abuztua pasa da, ezer gertatzen ez den hilabete lasaia. Aurten ere, nola ez, ez da gutxiagorako izan eta ez da albiste garrantzitsurik gertatu. Herri mugimenduek, beraien existentzia eta bizi duten apartheid sozialaren aurka oihukatzeke duten manifestaldi eskubidea etengabe urratua egoteak, iada, ez du inor sofistik altzarazten.

Beste izozki frexko bat eskatzen dugu Puertollanon langileak hiltzen diren bitartean eta patroil hiltzaileek irabaziei, langileen segurtasunari baino garrantzi gehiago ematen dieten bitartean. Orriak aspertuta pasatzen ditugu langileak sindikatu traidoreen alde batera organizatzen diren bitartean. Pauso nekatuaz, gure hiriko kaleetan zehar paseatzen dugu eta kurioso batzuek ormetan egindako pintadak irakurtzen ditugu, betikoa, etxe bat ilegalki okupatu duten gazte alfer eta araro batzuk ez dakit ze erresistentziarako deitzen dute. Oporretara joatean aurkitzen dugun panorama eta etxera itzultzean aurkitzen duguna. Ezer espezialik ez.

“Grezia eta Valentziako atxilotuak askatu”, “Eztakitzeinekin elkartasuna”, “Errepresioari ez”. Txakur bat pixa egiten. Beroarekin tontutatuko usoak. Gero eta auto gehiago kaleetan...

Hilabete aspergarri bat, guztia beti bezala. Hemen ez da ezer gertatzen

Etxe Okupetan, desalojoen aurkako ekintzak,



Etxe okupen hainbat desalojo daude iragarrita aurkirako, propietate pribatuaren eta bere baloreen defentsarako logika kapitalistaren barruan. CSO s' Eskola Palman, Les Naus eta Kasa de la Muntanya Bartzelonan... Eraso hauek, indarrez inposatu diguten mundu klasista eta autoritario honen aurka gauden guztion elkarkasuna eta erantzun gogorra merezi dute.

Kasa de la Muntanya-ren deialdia:

Kasa de la Muntanya orain dela 15 urte jaio zen egonezin pertsonalagatik eta beharrezkoa zelako. Hau, autogestia, antifaxismoa, antirazismoa eta antimilitarismoa (beste batzuen artean) bezalako printzipioetatik abiatuko zelarik. Espiritu kritikoa oinarritutako bizitzeko, borrokatzeko eta funtzionatzeko beste era batzuk daudela sinistu izan dugu eta sinisten jarraitzen dugu. Zentzu horretan, denbora guzti honetan zehar hainbate ekintza kultural eta salaketa sozial sortu ditugu. Kasa de la muntanya eta etxe okupa guztien alde egindako elkartasun ekintzetan parte hartzeko deialkia luzatzen dugu.

-**Urriak 1:** Jardinetas de Gracia-n **MANIFESTAZIOA**, 20:00h.

-**Urriak 2:** Kasa de la muntanyaren aurrean (Avda Santuari St Josep de la Muntanya, 33) **KONZENTRAZIOA**

-**Urriak 4:** Kasa de la Muntanyaren desalojoari erantzuteko **MANIFESTAZIO** internazionala (konkretatzeko). Kasa de la Muntanyaren (eta mehatxatutako beste etxe okupen) desalojoari, aurre egieko, Asamblea d'Okupes montatzen ari diren borroka egunek (iraila-urria) buruz informatzeko eta eraso judizial, politiko eta polizial honen aurrean elkartasuna osatzeko, Irailak 9 asteartea, 20.00etan Espai Oberten egingo den asanbladara deitzen dizuego.

www.nodo50.org/kasadelamuntanya www.sindominio.net/lesnaus

Eztabaida ideologikoa La Hainen

Espainiar Kapitalismoaren zabalkundearen fase berria, eztabaidan.



Profesor J Txileko justiziara entregatu da,



Jaime Yovanovic Prieto, Profesor J, Txileko justiziaren eskuetan entregatzen da, Pinocheten diktadura garaian Carol Urzua general txiletarraren ajustiziamentuan parte hartzeagatik.

Intelektual eta iraultzaile marxista, urtebete zehar, Profesor J, erregimeneko harakinengandik torturatua izan zen. Bere herritik botata, berriz borroka armatura bueltatzen da, 1984ean diktadurako zerbitzu sekretuak atzetik zituela errefuziatu behar izan zuen arte.

Ordutik, hainbat herritan zehar egon da, buruan bere herrira bueltatzeko ideiekin eta praktikan ahaltsuaren aurkako borrokan diarduelarik. Bere herrira bueltatzea erabaki du.

<http://clajadep.lahaine.org> www.lahaine.org/profesor.htm

Bilbo: Apartheid no. Autodeterminación



Pasa den Abuztuaren 22an, Bilbon “Apartheid ez, Autodeterminazioa” lemapean manifestaldia iragan zen. Mobilizazio hau, manifestazio eta espresio eskubideen urraketen atzetik dator, espainiar gobernu, gasteizko tripartitoa eta justiziaren eskutik. Irailak 14 famatu hartatik, non PNV-EA eta Iuk “Gora Euskal Herria” manifestaldia txikitzeko agindua eman zuten, (dozenaka

Pertsona zaurituak eta mutilatuak izan ziren, begiak galduz eta gezur zikin bat justifikazio bezala) gaurko egunera heltzen gara, non euskaldunen eskubide zibilak toki guztietatik hausten ari diren, ilegalizazioak eta partidu politiko eta taldeentzat, informazio zerbitzuen itxierak, redadak eta atxiloteta masiboak, torturak eta herriaren hitzari inolako errespeturik eza, partidu “demokratiko”en eskutik. Euskal Herria, Apartheid egoera batean dago, batez ere sektore batzuk, beraien eskubideen urraketa jasan ezinarekin.

2003.en urtea, Europa, Euskal Herria salbuespen egoeran, non sektore batzuk apartheid berria bezala kalifikatu duten.

http://www.lahaine.org/paisvasco/minuto_22a_bilbo.htm

Borroka sarean

www.nodo50.org/resumen
www.mediaberri.org
www.euskalherria.indymedia.org
www.stoptortura.org
www.kalegorria.net

www.rebeldiaeneh.tk/
www.nodo50.org/ehk
www.barcelona.indymedia.org
www.gaztesarea.org
www.segi-gazte.com
www.nodo50.org/izca

www.antorcha.org
www.galiza.indymedia.org
www.nodo50.org/rashmadrid
www.boltxe.net
www.cnt.es/gipuzkoa/

